



INPRIMAKETA SEGUURUA

**SAIHESTU SEGURTASUN-INPRIMAKETAREKIN
DOKUMENTUAK
FALTSUTZEA:**

**Txartelak, zigiluak, kupoiak, taloitegiak...
Tinta eta berniz bereziak, dokumentuak blindatu
eta datuak ez aldatzeko.**

INPRIMAKETA SEGURUA

Nola funtzionatzen du?

Segurtasun-tintak eta -bernizak erabiliz egindako inprimaketa gaur egun marka babestu eta inprimakietan iruzurra prebenitzeko sistemarik onena da.

Segurtasun-tinta mota desberdinak daude eta hautemateko orduan duten zailtasun-mailaren arabera sailka ditzakegu.

Txekeak, tituluak, diplomak inprimatzea... ziurtagiriak, ekitaldietarako sarrerak, txartelak... Erabili segurtasun-tinta bereziak, faltsutzearen kontra inprimakiak babesten dituztenak.

SEGURTASUN-ELEMENTU IKUSGAIK

Segurtasun-neurri ikusgaiak dira eta erraz identifika daitezke:

1. **Tinta termokromikoak**, temperaturarekin kolorea modu itzulgarrian aldatzen dutenak. Temperatura-tarte bat gainditzean kolorea desagertzen da. Hiru tarte daude eskura: temperatura hotza (10°C), gorputz-temperatura (30°C) temperatura beroa (40°C).
2. **Tinta fosforeszenteak**. Tinta hauek argia botatzen dute, argi-iturri baten ondoan egon ondoren, bertatik kentzen direnean.

EZKUTUKO SEGURTASUN-ELEMENTUAK EGIAZTATZEKO INSTRUMENTU-EKIPAMENDUA BEHAR DUTE

1. **Tinta fluoreszenteak**. Tinta ikusgaiak edo ezkutuzkoak dira eta argi ultramorearen lanpara batekin argiztaten direnean kolore desberdinak dituzte.
2. **Tinta infragorriak**. Tinta horiek ezkutuzkoak dira eta laser infragorriarekin argiztatuz, igorpen-kolore desberdinak ikus daitezke.